

Udalean eta komertzio batzuetan lan egingo da Santiago egunean

Dendariek “Euskal Herria eraikitze” euren “ttanttoa” jarri nahian lanegun normaltzat hartuko dute biharkoa. Udalean ere (epaitegietak erantzunaren zain egonagatik) lan egingo da.



Argazkia: U. Agirre

Bihar ere ez dituzte denda guztiek pertsianak jeitsiko.

Udalean “izaera espainiarreko jai egunetan” lan egiteko hartutako erabakiak gero eta soka luzeagoa dakarki. Azken egunetan Hernaniko bederatzi komertzio batu zaizkio proposamenari, eta bihar lan egingo dute.

ZERBAIT ERAIKI NAHIA
Komertzianteeek argi utzi dute, zerbaiten aurka baino, zerbait eraiki nahian sortutako iniziatiba dela. Euskal Herria eraikitze eman beharreko pausoetan beren “ttanttoa” jarri nahi dute.

ATXIKIMENDU GEHIAGO

Miner Janaridenda, Gorri, Urbietako Kopiak, Andrekale 35, Axel, Alimentación Ibañez, Arka, Ghetto Diskak eta Gausapa CP Serigrafia dira, “presakako iniziatiba izaki” agiria sinatu duten komertzioak. Euren hitzetan, ordea, askozaz gehiagok egin dute bat azken nean.

ORDEZKO JAI EGUNAK
Pilarika eta Kostitutazio egunetan ere, lan egiteko asmoa azaldu dute. Ordurako “beste gorputz bat” izango omen du ekimenak. Aurrera begira, ordezeko jai egunak aurkitu behar omen dituzte, Espainia eta Frantziarekin ez, eta Euskal Herriarekin zer ikusia dutenak.

HERRIARI DEIA
Gainerako komertzioei, tailer eta enpresei ere luzatu nahi diete deia sinatzaileek. Negozioa istea ez dute begi txarrez ikusiko, baina ziur daude, aurrera, askoz jende gehiago bilduko zaiela. Bihar beraz, nahi duenak izango du erosketak egiteko aukera. □

UDALA EPAILEEN ERABAKIAREN ZAIN

CCOO eta ELAk epaitegiak eraman zuten udala, Santiago, Pilar eta Konstituzio egunetan lan egiteak langileen eskubideak urratzen zituela-eta. Lan arloko epaitegiak, erabakia bere esku ez zegoela adierazi zuen hasieran. Ostiralean, ordea, badaezpadako neurri gisa, Santiago egunean jai egiteko agindua eman zuen.

Udalaren ustez jai egiteak gauzak gehiago nahasten ditu, lan egiteko plana osatuta baitaude. Gaur 9:30etan epaitegian dute zita, eta ordubatean prentsaurrekoa emango dute udaletxean. Agindua edozein dela ere, bihar lan egingo omen dute.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Igerilariak amaiera bikaina eman diote denboraldiari

Lortutako medailek eta emandako itxura onak aho gusto gozoa utzi dute Hernaniko taldean. Bihar batzuek Getaria-Zarautz proban parte hartuko dute.



Adin guztietako igerilariak ditugu Hernanin. Azken emaitzen arabera, ez nolanahikoak gainera!

DENBORALDI ofiziala bukatu da Hernaniko igerilariarentzat. Akabo entrenamendu eta urpeko bakarriketak, irailean “pre-tenporada” hasi arte.

Gipuzkoako txapelketak jarri dio ginda aurtengoari, eta hernaniarrentzat modu gozoan gainera. Aurtengo medaila eta denbora onak ez dituzte berehalakoan ahaztuko.

GETARIA-ZARAUTZ PROBA

Bihar itsasoan 2800 metro egiteko aukera izango du nahi duenak (edo ahal duenak), Getaria-Zarautz proba jokatu-ko baita. Hernanitik koadrila “dijoa” gatzetan hankak bera- tzeraz, gero hamaiketako ere izaten omen da-eta...

Aitzakia ederra zenbaitek. □

Bihar eta etzi ez da Kronikarik izango

ZENBAITEK ez dauka garbi Kronika noiz ateratzen den. Ostegunetik astelehenera ateratzen da. Astearte eta asteaz-

kenetan jai egiten du.

Beste egunkariak saltzen diren tokietan eskatu lasai, debaldekoa da-eta. □

Zure publizitatea hemen

HERNANIK
kronika



943 330899

kronika@topagunea.com

BURUNTZALDEKO KIROL UDALEKUAK

Kitto!! Datorren urtean ez dira egingo

Euskara batzordeak Hernanirako zerbait antolatzea badabilki buruan.



BURUNTZALDEKO (Lasarte, Andoain, Urnieta, Usurbil eta Hernani) udalek elkar hartu eta 11tik 14ra urte bitarteko neska-mutikoentzat kirol udalekuak antolatu izan dituzte. Euskara eta denbora libre nola elkarri josiko, bost urtetan egin dituzte, urtero herri banatan. Azkenengoak Hernanik antolatu ditu, Goizuetan.

TALDEAK EZIN OSATURIK Gipuzkoan udaleku-eskaintza haundia dago (Diputazioarenak, herri bakoitzarenak, libreak...) horrexegatik izan dituzte lanak, gazte koadrilak biltzeko. Gehienak hernaniarrak (68tik 27), eta bada gaztetxo bakar bat ere bidali ez duen herririk.

DATORREN URTERAKO ZER EGIN? Gurean udalekuak antolatzen dira, bai, baina, bosgarren mailatik beherakoentzat. Eta besteak? Berez, nora joanaren faltarik ez dute. Herrian bertan aukerarik ez, ordea; hortxe kokka. “Herriko talderen bati antolatzeko eskatu...” Izango da nork gozatua. □

‘PENSIÓN ZINKOENEA’: hamar egun zabalik eta holandesak, suizoak, madrileinoak...

Herriko pentsio ‘ofizial’ bakarra da; orain turismotik, eta neguan enpresetako jendearekin ikusten du Mari Jose Garmendiak aurrera egiteko bidea.



Mertxe Iradi zenak (koadroan) zabaldutituen 1922 inguruan Zinkoenea taberna eta pentsioa. Orain, ilobaren txanda.

“GELAK eta, bai, baina, pentsiorik ez zegoen, ez” ia hoge mila lagunek herrian. “jendeak Donostiara joan behar izaten zuen” Aukera ikusi eta Mari Josek berak jarri du Zinkoenea taberna gainean. Estrenatu madrileinoek egin omen diote.

ZORTZI GELA Zazpi bina ohekoak eta zortzigarrena matrimoniokoa. Gela bakoitzak bere bainua eta telebista ditu. Sala koxkor bat, behar izanez gero garbiketak ere bertan egin litezke. Otordurik ez. Bi kilo txuletan prezioan, hor nonbait, pasa liteke gaua. □

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat ezagutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauzen baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

- **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.
- **Epea:** astebete.
- **Saria:** urte bukaeran gehien asmatu dituzten bientzat *Kronikaren* urteko bilduma.

HITZ BITAN

✓ARRAUNA

Urdaibaik Bandera eta Hernani bederatzigarren Mutrikun. Itsaso barea eta haizerik ez, denbora onak egiteko tamainakoa. Urdaibai hoge minutu eta erdiz azpitik ibili da. Hernaniarrek ere gaizki ez, baina, erdarazko bedekazioak ez zien behar adinako indarrak eman izango! Bihar Koxtapeko Bandera.

✓MUSIKA

Hernaniko txistulari, tronpajole eta tronpetariak Billa-bonan. Urtero bezala (aurtengoa 35garrena da), Santiago egunez txistu kontzertua izango da, eta Hernaniko koadrila ere han. Zuzendaria: Kepa de Migel txistularia. □

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943464622
943 335533
- Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- Egunez: **Irigoyen**,
(Elkano, 2 ☎ 943-552087)
- Gauez: **Irigoyen**
(Elkano, 2 ☎ 943-552087)

ASTEARTEA

Egunez: **Sagastiberri**
(Urbietan, 7.
☎ 943-552941)

► Gauez: **Gorospe**
(Andoain, Rikardo Arregi, 12
☎ 943-592415)

ASTEAZKENA

► Egunez: **Correa**
(Antziola, 44. ☎ 943-551933)

► Gauez: **Arzallus**
(Andoain, Plazaola, 17
☎ 943-591514)

AGENDA

❖ ERAKUSKETA

Lore lehorrak.
Hernaniko Anparorenak
Txema tabernan.

INGURUAN

Lasarten

❖ MUSIKA

Folklore jaialdia
22:30etan polikiroldegian.